

EZ IZAN BIDURRIK!

1

Joan zan nire gaztaroa
atseginez oparoa;
geienbatean zer nai ta axe,
zer abaroa!
Gainean dot zartzaroa,
berez beerantza naroa;
bildur ta kezka ni egotea
ez da arraroa.

2

Jauna, ez daukat indarrik
ta ez jat falta negarrik;
ai, ez al dozu ortik entzuten
nire deadarrik?
-Ez daukat entzun bearrik,
zeugaz naukazu itzarrik;
jakizu, maite, ez zaitut izten
inoz be bakarrik».

3

Joandakoa iluna
ta bardin etorkizuna;
Zuk bete zeinke bakarrik, Jauna,
zar baten utsuna.
-Aztu al jatzu, laguna,
Aitak deitsun maitasuna?
Bere eskuan itzi egizu
gaua ta eguna».

4

Ezin dot jaso bururik,
ezin garbitu konturik;
kezkatan nago ba ete dagon
niretzat zerurik.
-Eukizu au sinisturik:
badozula an lekurik;
zeuri laguntzen nozu ondoan
il eta bizturik».

5

EZ zerurik ta ez lurrik,
ez daukat ezer ziurrik...
Ez jat sekula barruan sartu
olako lapurrik.
-Guk dogun Aita samurrik!
Inok ezin emon urrik...
Ni beti zeugaz naukazu eta
ez izan bildurrik»

6

Noraezean ta larri
zartzaroen nago sarri,
zeuk ikusita, Zuk badakizu
ondo gure barn.
-Zuk uste on Nigan jarri
ta esku ori ekarri;
Neuk arinduko deitsut gaineko
zama ta buztarri».

7

Bein itzarrik ta bein lotan
kezka bardina askotan:
Dana itzita, joan bearra
noiz izango dotan...
-Eukizu auxe gogotan:
Zu betiko galtzekotan,
nire bizia alperrik emon
nebala Golgotan».

8

Au da poza barrenean
Zurekin nagoanean!
Bildur guztiak igesi doaz
zure izenean.
-Emen naz aldamentean,
zeugaz artuemonean;
biok alkartu arte betiko
an Aitarenean».

A. Martzel

